ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko urriaren 21a, asteazkena • 121 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

329/2026 Foru Agindua, irailaren 30ekoa. Lagrango ur biltegi berria eraikitzeko proiektuaren ingurumen inpaktuaren txostena egitea

Arabako Foru Aldundiko Ingurumenaren Kalitatearen Zerbitzuak sustatu duen «Lagrángo ur biltegi berria eraikitzeko proiektua» deritzonaren ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedurari loturik dago, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoaren arabera, zehazki 7.2.b) artikuluak dioenari jarraikiz, xedapen horretan jasotzen baitira I. eta II. eranskinetan jasota ez dauden eta, zuzenean edo zeharka, Natura 2000 Sareko naturaguneei nabarmen eragin diezaieketen proiektuak.

Era berean, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea aplikatu behar da, bereziki, II. E.3 eranskina, II. D eranskinean jasota ez dauden proiektuei buruzkoa, baldin eta, zuzenean edo zeharka, banaka edo beste plan, programa edo proiektu batzuekin batera, naturagune babestuei edo natura ondarea kontserbatzeko araudiaren arabera babes araubideren bati loturik daudenei nabarmen eragin badiezaiekete.

Honako proiektu hau esandako prozedurari lotuta dago, hain zuzen ere, babestutako guneetan eta kontserbatu beharreko ingurumen balioetan izan dezakeen eraginagatik. Hori dela eta, dagokion ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua izapidetu behar da, baimena eman aurretik.

10/2021 Legearen 62. artikuluan ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoari dagokio ingurumen inpaktuaren txosten hau egitea, dagokion proiektua behin betiko onartzeko funtsezko eskumena Arabako Lurralde Historikoko foru organoari baitagokio.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzu honek, proiektuaren sustatzaileak bidalitako dokumentazioa jaso ondotik, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultak egiteko aldiari edo faseari ekin zion, 21/2013 Legearen 46.1 artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz.

Kontsulta aldia amaituta, ingurumen inpaktuaren txostena egin du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Zuzendaritzak eskatuta.

Ingurumen inpaktuaren txosten hau nahitaezko txosten loteslea izango da, 10/2021 Legearen 79.1 artikuluak dioenari jarraikiz.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak egin du 2026ko uztailaren 17an (26/03 EIA espedientea).

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena.

1.1.1. Abiapuntuko egoera:

Lagrángo herrigunea bi hartuneren bidez hornitzen da gaur egun: Fuente de San Juan izeneko iturburua (≈1 l/s, 1.035 metroko kotan) eta Turiquianako sorburua edo Lagrángo sorburua deritzona (897 metroko kotan). Iturburu horietako urak kutxatila batean biltzen dira eta 500 m^3-ko edukiera duen erdi lurperatutako biltegi erregulatzaile batera eramaten dira. Ur biltegia diseinatuta

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

dago elurteen ziozko isolamendu aldietan hornidura bermatzeko eta urtaroko eskari gehikuntzei erantzuteko, eta hipokloritoa darabilen klorazio sistema, maila kontrolatzeko sistema, altitudeko balbula eta erregulazio elementuak nahiz bypass-ak ditu. Azpiegiturak ez du hartune elektrikorik, eta klorazio ekipoek eguzki elikaduraren baliatuz funtzionatzen dute. Oro har, biltegiratze ahalmen handia du sistemak, eta ingurunean hartutako jatorri naturaleko baliabide hidrikoak erabilita, herrigunearen hornidura bermatzen du.

Berriki, patologia garrantzitsuak antzeman dira egungo hornidura biltegi edo andelean; batez ere, pitzadurak eta, junturetan, irekidurak aurkitu dira, eta halakoek ur galerak eragiten dituzte eta instalazioaren estankotasuna arriskuan jartzen dute. Era berean, akats horiek direla eta, zalantzan jarri dira biltegiaren egiturazko osotasuna eta zerbitzua segurtasun eta funtzionaltasun baldintza egokietan ematen jarraitzeko gaitasuna. Egoera horretan, 2022ko irailean, Lagrángo (Araba) edateko uraren biltegiaren patologiak ebaluatzeko txosten teknikoa egin zen, eta txosten horren ondorioek argiro iradokitzen dute komeniko litzatekeela beste azpiegitura bat eraikitzea, egun dagoena ordezteko. Aurrekoaren ondorioz, eraikuntza proiektua idatzi zen, herrigunearen etorkizuneko hornidura bermatzeko beharrezkoak diren jardueren alderdi teknikoak eta ekonomikoak zehazteko helburuz.

1.1.2 Proiektatutako irtenbidea:

Erabakitako irtenbidea da edateko ura erregulatzeko biltegi berria egitea, guztira 501 m^3-ko edukiera izango duena, diseinuaren etorkizuneko proiekzioan aurreikusitako eguneko gehieneko eskariari (378,13 m^3) erantzuteko eta suteen aurkako 120 m^3-ko erreserba bermatzeko. Azpiegitura berria lehendik dagoen biltegiaren inguruan eraikiko da, gutxi gorabehera, 25 metro goragoko kota aprobetxatuz, kokapen horrek hornidura sarearen zerbitzu baldintzak hobetzea ahalbidetuko baitu.


Ur biltegiak 867,05 metroko kotan egongo den zolata eta 871,25 metroko kotan egongo den gehieneko ur geruza izango ditu. 8,70 x 7,20 x 4,00 metroko barne dimentsioan dituzten bi ontzi bereizi osatuko dute, horietako bakoitzak 250,5 m^3-ko edukiera izango duela. Kontrol eta maniobra etxola biltegiari atxikita dago, eta instalazioa ibiltzeko, erregulatzeko eta kontrolatzeko beharrezko elementu guztiak ditu. Azkenik, biltegi zaharra eraitsiko da.

1.1.3. Proiektatutako jarduketen deskribapena.

Lanak hasi aurretik, instalazioetarako eremuak egokitu, zuinketa egiaztatu eta jarduketaren eraginpeko azaleretako belar-sastrakak kenduko dira.

Biltegia ezartzeko, behar den hondeaketa egingo da, euskarri nahiko eskaintzen duen lurra idoro arte. Aurreikusitakoaz bestelako sakoneran harri trinkoa antzemanez gero, hormigoi ziklopeozko oinarria egingo da, egituraren zimendu egokia bermatzeko. Azpiegitura paisaian integra dadin aurreikusten du diseinuak, mendi hegalean erdi lurperatuta jarrita, balbula etxolari dagokion eremua besterik ez dela ikusgai geratuko.

Biltegiaren egitura tokian bertan isuritako hormigoi armatuz altxatuko da oso-osorik, zimenduak, hormak eta estalkiko lauza barne. Kontrol etxola ere hormigoi armatuz eraikiko da, teila zeramikoz hornitutako estalki inklinatua eginda. Kanpotik, kareharrizko xaflez estaliko da; barruko akaberak, berriz, hezetasunaren eta onddoen aurkako pinturaz margotuko dira. Halaber, aireztapen naturala izango du, metalezko saretei eta orri bikoitzeko segurtasun ate bati esker.



Lagrángo ur biltegia, oinplanoa eta akaberak. Bistak eta sekzioa

Ontziak edo andelak ikuskatzeko eta mantentzeko lanak errazteko, altzairu galbanizatuko pasabideak eta eskailera metalikoak jarriko dira, etxolaren eta biltegiratze ontzien artean egokitzen diren hutsuneetatik sartzeko.

Irtenbide hidraulikoaz denaz bezainbatean, egon dauden hartuneak PEAD PE100 PN10 polietilenozko hodien bidez lotuko dira.

Instalazioa osatzeko, sistema elektrikoa eta kontrol sistema erabiliko dira, honako hauek gauzatuta: maniobra armairua, iragazteko eta kloratzeko ekipoen elikadura eta kontrola, emari neurgailuen konexioa, hodien maila neurtzeko sentsoreak, argiztapen zirkuituak eta zerbitzu osagarriak.

Gainera, biltegiaren ondoko ingurua urbanizatzeko proiektua egin da, hormigoi armatuzko plataforma baten bidez, ustiapen eta mantentze lanak errazteko, ibilgailuak aparkatzeko espazio nahikoa ere aintzat hartuta. Instalaziorako sarbidea lehendik dagoen bidetik egingo da, eta lanak amaitutakoan errodadura-geruza lehengoratzea eta hobetzea aurreikusten da.

Azkenik, lotura berriak egin ondoren, biltegi zaharra eraitsi eta hartzen duen eremua lehengoratuko da. Lanak egin bitartean aurreikusitako lur mugimenduen ondorioz, soberako 277,01 m^3 lur sortuko dira, eta baimendutako zabortegi batera eramanez kudeatuko dira, hondakinen eta hondeaketa lurren kudeaketari buruz indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

1.2. Ebaluazioaren xede den eremu geografikoa:

Jarduketa eremua Lagrángo udalerrian dago, Arabako Mendialdeko Kuadrillaren barruan, Arabako Lurralde Historikoaren hegoaldeko esparruan. Proiektua Arabako hegoaldeko mendilerroen iparraldeko isurialdean kokatzen da, zehazki, Toloño mendilerroaren magalean, Arabako hegoaldeko mendilerroen egitura menditsuen barruan, Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoen arteko trantsizioa ezaugarri duen mendi ertaineko ingurune batean.

Jarduketa egingo den ingurunea naturaltasun handikoa da, eta Toloño mendilerroaren balio ekologiko eta paisajistikoei estu lotutako mendiko baso paisaia eta nekazaritza paisaia gisa eratzen da.

Lursailaren inguruan, *Quercus* generoko espezieak nagusi diren zuhaiztiak nabarmentzekoak dira, oihanpe trinko batez lagunduta. Azken horretan, honako espezie hauek ageri dira nagusiki: ezpela (*Buxus sempervirens*), hurritza (*Corylus avellana*), sasia (*Rubus sp.*), basarrosa (*Rosa canina*), eta hainbat txilar eta iratze espezie. Oro har, elementu horiek guztiek ekologia eta paisaia interes handiko ingurunea osatzen dute, Toloño mendilerroaren iparraldeko isurialdeko mendi ertaineko eremuetan bereizgarria dena.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Biltegi berria eraikitzeko aurreikusitako eremuak nekazaritza erabilera du gaur egun, eta erliebe leuna eta irisgarritasun ona ditu lehendik dagoen bide saretik. Jarduketaren xede den lursaila orain dela gutxi soildu eta belar espeziez erein da, ustez, sega bidez aprobetxatzeko.



Lagrángo biltegi berriaren etorkizuneko kokalekua, bidearen ondoan (gorriz) egungo biltegitik ez oso urrun

Egungo biltegia dagoen inguruak jarduketaren xede den lursailaren inguruan deskribatu ditugun antzeko ezaugarriak ditu, baina kasu horretan, zuhaiztiak ugariagoak eta trinkoagoak dira; zuhaixken formazioak, aldiz, gutxiago garatu dira eta estaldura dentsitate txikiagoa dute.



Eraitsi beharreko biltegi zaharra dagoen eremuaren egungo egoera

1.3. Aztertutako aukerak:

Ingurumen dokumentuan aztertu diren aukerak ondokoak dira:

Biltegia kokatzeko aukerak:

Azterketak biltegi berriaren kokalekuak eta tipologiak ebaluatu zituen, proiektuaren baldintza teknikoei eta jomugei emandako erantzuna optimizatzeko. Hona hemen aztertutako aukerak:

• 1. aukera: horretan, biltegi berria egungoaren kokaleku berean eraikitzea proposatzen zen. Horretarako lehendik zegoen azpiegitura eraitsi behar zen, behin-behineko bypass sarea egin hornidura bermatzeko eta jatorrizko zimenduak aprobetxatuko ziren.

• 2. aukera: horretan, andel berria lursail beraren barruan jartzea proposatzen zen, baina egungo biltegiaren aztarnatik aldenduta. Irtenbide horri esker, lanek iraun artean lehengo instalazioa ibiltzen eduki zitekeen, eta andel berria martxan jarri ondotik eraitsi.

• 3. aukera (hautatua): Miralobueno gainean. Aurreko aukerak baztertu ondoren formulatu zen aukera hori, jatorrizko lursailean konplexutasun geoteknikoak agertu zirelako. Kokaleku berriak lursailaren baldintza onuragarriagoak eta seguruagoak ditu obra egiteko, eta horregatik erabaki zen guztietan irtenbide onena zela.

Egituren eta eraikuntzaren inguruko aukerak:

Hainbat eraikuntza tipologia eta geometria ebaluatu ziren biltegia gauzatzeko, eta aukera bakoitzaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertu zen:

Bertatik bertarako hormigoiaren aukera:

• Oinplano zirkularra: fluidoak biltegiratzeko egitura geometria ezin hobea du, eta armatzeko altzairuaren kantitatea murrizten duen diseinu trinkoa. Hala ere, baztertu egin zen, merkatuaren egungo murrizketak direla eta; izan ere, bolumen txikiko biltegiratze-obretan, kofratu zirkularreko sistemen erabilgarritasuna urria da prezio lehiakorretan.

• Oinplano angeluzuzena (aukeratua): mekanikaren ikuspegitik, aukera horren erantzun estrukturala zirkularrarena bezain egokia ez bada ere, eraikuntza bideragarriagoa da kontratista gehienentzat. Eskala txikiko biltegietan, tipologia hori irtenbide merkeagoa eta estandarizatuagoa da.

Sistema aurrefabrikatuen bidezko aukera:

Aukera hori baztertu egin zen, zigilatu behar diren juntura ugari daudelako. Oraintsuko proiektuetan metatutako esperientzia teknikoak erakusten duenez, kontratisten egikaritze akatsek edo enpresa aurrefabrikatzaileen ikuskapen eskasak patologiak eta estankotasun akatsak eragin ohi dituzte; eta arrisku horiek saihestea lehenetsi da proiektu honetan.

Ingurumen dokumentuan hautatu diren irtenbideek 3. aukera hobetsi dute biltegia ezartzeko, hain zuzen ere, Miralobueno gainean, hango lurrak berme eta segurtasun geotekniko hobeak dituelako, oinplano angeluzuzeneko bertatik bertarako hormigoizko egitura tipología baliatuz, eskala txikiko lanetan irtenbiderik merkeena, estandarrena eta eraikigarriena delako, eta, horrela, enkofratu kostuak direla eta, geometria zirkularra eta, junturetan gerta daitezkeen estankotasun arriskuak saihesteko asmoz, sistema aurrefabrikatuak baztertu egin dira.

Ingurumen ondorioetarako, aukerei buruzko azterketaren aldeko balorazioa egin da.

2. Kontsulta aldiaren laburpena

Jarraian, kontsulta egin zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda agertzen da, eta horietako zeinek erantzun duen adierazi da:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza	X
URA - Uraren Euskal Agentzia	X
IHOBE - Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Arabako Kontzejuen Elkartea - AKE	
Arabako Natur Institutua - ANI	
Eguzki Talde Ekologista	
Ekologistak Martxan Araban	
GADEN - Natura Defendatzeko eta Aztertzeko Arabako Taldea	
Hontza Natura Elkartea	
Gaia Elkartea	

Mendi Federazioa Ingurumen Atala	
Aranzadi Natur Zientzien Elkartea	
SEO Birdlife - Espainiako Ornitologia Elkartea	
UAGA - Arabako Nekazaritza eta Abeltzaintza Elkartea	
Lagrángo Udala	
Lagrángo Administrazio Batzarra	
Pipaóngo Administrazio Batzarra	
Villaverdeko Administrazio Batzarra	
Arabako Mendialdeko Kuadrilla	
URBIDE - Arabako Ur Partzuergoa	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ondare Historiko-Arkitektonikoaren Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua (Urak)	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua	

Era berean, espedientearen dokumentazioa jendearen eskura jarri zen Arabako Foru Aldundiaren webgunean.

Jarraian, jasotako erantzunetan jasotako alderdien laburpen txikia egin da (jasotako dokumentu osoen kopiak erantsi dira):

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzak, Natura Ingurunearen Zerbitzuaren txostenaren bidez, adierazi du proiektua Natura 2000 Sareko «Arabako hegoaldeko mendilerroak» (ES2110018) KBE eta HBBEaren barruan dagoela oso-osorik. Gaineratu duenez, ingurumen dokumentuak ez du jasotzen eremu babestu horretan izango dituen ondorioen azterketa osorik, baina aurreikusi diren jarduketak —hau da, hornidura biltegi berria eraikitzeak eta lehendik dagoena eraisteak— lurralde okupazio txikia du, eta ez dakar ur hargune berririk, ez eta erregimen hidrikoaren aldaketarik ere, egungo hartuneak azpiegitura berriarekin lotu beste helbururik ez duela. Lanen izaera eta irismena ikusita, ez da eragin nabarmenik aurreikusten KBE/HBBEan kontserbatu beharreko habitat, espezie edo elementu esanguratsuetan, ez eta Natura 2000 Sarearen osotasunean ere, betiere dagozkion prebentzio eta zuzenketa neurriak hartzen badira. Hala ere, jarduketa eremuaren zati bat kartografiatuta dagoen Batasunaren lehentasunezko intereseko habitat (6210(*)) bati dagokiola identifikatu du, gaur egun nekazaritza aprobetxamenduek eraldatzen dutena.

Natura Ondarearen Zuzendaritzaren aburuz, ingurumena lehengoratzeko azaldu den proposamena ez da nahikoa erkameztiaren gainean aurreikusi den eragina behar bezala konpentsatzeko. Bereziki, beharrezkotzat jotzen da lehengoratutako azalera handitzea, eragindako azalerari dagokionez, gutxienez, 1:2 konpentsazio erlazioa erdietsi arte; horrek esan nahi du erkameztiaren 1.190 m² inguru leheneratu behar direla edo, halakorik egin ezean, konpentsazio neurri osagarriak ezarri behar direla. Era berean, lehendik dagoen biltegiak hartzen duen azaleraren ingurumen leheneratzea jasotzea ere gomendatzen da, andela eraitsi ondoren. Proposamen hori Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak zehaztu eta baliozkotu beharko du. Azkenik, ez da nahikotzat jotzen sustatzaileak berrezartzeko aurreikusi duen berme-aldia, eta, beraz, bi urtetik hiru urtera luzatu beharko da, landareztatze jarduketen ezarpen eta jarraipen egokia ziurtatzeko.

Faunari dagokionez, txostenak adierazten du jarduketa eremuak interes ekologikoa duela, usapal europarrarentzat (*Streptopelia turtur*) lehentasunezkoa den esku hartze eremuaren barruan dagoelako, bai eta hegazti nekrofagoen intereseko eremuetan eta linea elektrikoen talken aurrean babesteko guneetan ere. Hala eta guztiz ere, jarduketen aldi baterako izaera, zangen

garrantzi txikia eta eragindako azalera mugatua kontuan hartuta, ez da inpaktu nabarmenik aurreikusten bertan dauden espezieetan, betiere aurreikusitako prebentzio neurriak egoki aplikatzen badira. Neurri gehigarri gisa, ezinbestekotzat jotzen du langile espezializatuek berariazko prospekzio bat egin dezaten, lanak hasi aurretik eta, bereziki, belar-sastrakak moztu edo garbitu aurretik, habiak, babeslekuak, etzalekuak edo faunak erabilitako elementuak detektatzeko. Ale edo egitura interesgarririk aurkituz gero, Arabako Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaio, behar diren babes neurriak har ditzan.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak jakinarazi du proiektu horren esparruan ez dela Kultura Ondarearen gaineko eraginik antzeman.

— URA - Uraren Euskal Agentziak jakinarazpen txostena bidali du, eta bertan adierazi du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari (CHE) helarazi diola, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeari dagokionez gaiari buruzko informazioa ematea komeni ote den argitzeko xedez.

— Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak, zerbitzu horrek berak egindako txostenaren bidez, adierazi du lanek ukitutako eremuan arkeologia gune hau dagoela:

Torcazarrako Andre Mariaren ermita (Lagrángo 23. fitxa); beraz, azterketa arkeologiko xehatua egin behar da (Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 65. artikulua).

— Bestalde, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak jakinarazi du proiektatutako elementu batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzaren Lurraldeko Plan Sektorialak (LPS) katalogatutako lurzoruan daudela, «Basoa-mendi mehatza» deritzon kategorian.

Proiektuan jasotzen diren erabilerak eta jarduerak ikusita, eta LPSren arabera, nekazaritza arloko afektazioaren ebaluazio protokoloa (NAAEP) gauzatu da. Nekazaritza Zuzendaritzak, nekazaritza-arloko afektazioaren ebaluazio protokoloaren emaitza kontuan hartuta, eta jarduera horrek Lagrángo udalerriko edateko uraren hornidura hobeto kudeatu eta ustiatzea ahalbidetuko duela aintzat hartuta, erabilera onargarritzat jo du.

Era berean, NAAEP protokoloan adierazten denez, Lagrángo 1. poligonoko 1790 lurzatia akuiferoen kutsadurarekiko oso kalteberatasun handia duen eremu batean dago, eta, beraz, kontu handiz ibili behar da biltegi berria eraikitzeko eta ustiatzeko faseetan. Bereziki, zorrotz kontrolatu beharko da erregaien, olioen, lubrifikatzaileen eta kutsagarriak izan daitezkeen beste gai batzuen erabilera, ustekabeko isuriak saihestuz eta ontziak eta hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatuz, Nekazaritza eta Basogintzaren LPSren 71. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Era berean, ingurumen dokumentuan aurreikusitako prebentzio eta zuzenketa neurri guztiak aplikatu beharko dira, proiektua garatu bitartean lurzoruari, lurpeko urei eta inguruneko gainerako osagaiei ahalik eta kalte gutxien eragiteko.

Zuzendaritzak adierazi duenez, biltegi berria jartzeko aurreikusi den lurzatiak Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan 030-000-34 zenbakiarekin inskribatuta dagoen landa bidearekin egiten du muga, eta, beraz, lanek, eraikuntza makinek eta ibilgailuen joan-etorriek azpiegitura horri eta inguruko beste landa bide batzuei eragin diezaiekete. Ondorioz, lanak hasi edo ukitutako bideak erabili aurretik, txosten teknikoa eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuari, eta dagokion erakunde titularraren baimena lortu beharko da, landa bideak erabili, kontserbatu eta zaintzeko 6/1995 Foru Arauarekin bat etorriz. Era berean, lanak amaitu ondoren bideak jatorrizko egoerara itzuliko direla bermatuko da.

3. Kalterik har lezaketen ingurumen balio handieneko elementuak. Ingurumen inpaktu esanguratsuenak

Hasteko, «Lagrángo ur biltegi berriaren eraikuntza proiektuaren» ziozko ingurumen inpaktu nagusiak bereizi egin beharko lirateke, haren inplementazioa osatzen duten faseak kontuan

hartuta, hau da, eraikuntza fasean eta ustiapen fasean. Ingurumen inpaktu horiek bateragarriak eta kasu jakin batzuetan moderatuak direla esan daiteke. Jarraian, aztertutako proiektuak ingurumenean dituen eragin nagusiak laburbildu dira:

<table>
<tr><th>ELEMENTUA / ERAGINDAKO INGURUNEAREN EREMUA</th><th>DESKRIBAPEN LABURRA</th></tr>
<tr><td>Geologia, geomorfologia</td><td>Azterketa eremua jatorri kuaternarioko alubioi abaniko baten gainean dago, San Bartolome sakanaren ekarpenei lotuta, non substratu harritsua sakonera handian baitago finkatu gabeko sedimentu metaketen azpian. Eskualdeari dagokionez, biltegia eta iparraldeko trazadura Holozenoko ibai materialen gainean daude; hegoaldeko zatia, berriz, Goi Kretazeoko materialen gainean datza. Litologiari doakionez, lodiera handiko eta iragazkortasun handiko azaleko kolubioi metaketak dira nagusi, eta horrek akuiferoen urrakortasun handia dakar
Geologiaren eta geomorfologiaren gaineko eragin nagusiak hodiak egiteko eta ur biltegi berria eraikitzeko hondeaketa lanen ziozkoak dira, proiektuaren eremuan besterik ez. Lurzoru naturalean egiten diren jarduketak unean unekoak eta garrantzi txikikoak direnez, faktore horren gaineko inpaktu globala txikia izango dela onartu behar da, baina neurri ertainekotzat jo daitezke, kokalekua naturagune babestu baten barruan dagoelako. Biltegiak 441 metro koadroko azalera hartzen du, eta 129 metroko zortasun eremua du hari lotuta. Funtzionamenduan, ez da inpaktu esanguratsurik espero, proiektuaren ezaugarriak direla eta</td></tr>
<tr><td>Lurzoruaren okupazioa</td><td>Proiektuaren eremuaren barruan dagoen lursailak EAEko Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialari atxikitako ‘Basoa-mendi mehatza’ kategorian sailkatutako lurzoruei dagozkie. Jarduketaren aurreko fasean, lurzorua aldi baterako okupatzea aurreikusten da, materialak pilatzeko, hondakinak kudeatzeko, obra etxolak eta zerbitzu osagarriak egiteko, bai eta hoditeria jartzeko unean uneko okupazioak eta biltegi berriari lotutako behin betiko okupazioa egiteko ere. Lanen fasean, belar-sastrakak kentzeak eta lur mugimenduek areagotu egingo dute lurzoruak higadura jasateko duen arriskua, landare estalkia kentzean eta horizonte edafikoaren kohesioa murriztean. Hala ere, erauzitako landare lurra berrerabiltzea aurreikusten da, profil edafikoaren aldaketa minimizatuta. Oro har, edafologiaren gaineko eragina bateragarritzat jotzen da
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak egindako txostenak eta nekazaritzaren arloko eraginaren ebaluazioak ezartzen dute txostenaren xede den proiektuak erabilera onargarria duela Nekazaritza eta Basogintzaren LPSean ezarritakoaren arabera. Laburbilduz, ingurumen dokumentuan jasotako okupazioak honela geratuko dira
<table>
<tr><th>OKUPAZIO MOTAK</th><th>AZALERA (M²)</th></tr>
<tr><td>Aldi baterakoa</td><td>1.687</td></tr>
<tr><td>Behin betikoa</td><td>441</td></tr>
<tr><td>Lurpeko hodien zortasuna</td><td>129</td></tr>
</table></td></tr>
<tr><td>Hidrogeologia eta hidrologia</td><td>Biltegiaren eta haren hodien ezarpen eremuak ez du azaleko ur ibilgu iraunkorrik, eta jariatze txiki bat baino ez da detektatzen hegoaldean, gainezkabidearen konexioa aurreikusita dagoen lekuan. Eremu hori «Ega» ibaiaren arroaren barruan dago, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren eskumendeko Ebroko Demarkazio Hidrografikoan. Ikuspegi hidrogeologikotik, eremua Toloño mendilerroa deritzon ES091MSBT022 lurpeko ur-masaren gainean dago (Gaztelu sektorea), urtean 15,10 hm³-ko baliabideak dituela eta akuiferoen kutsadurarekiko oso kalteberatasun handia. Gainera, EAEko interes hidrogeologikoko eremu baten barruan dago, Toloño mendilerroaren unitate hidrogeologikoaren barruan. Mesozoikoko material karbonatatu oso deformatuak, Ebroko sakonunearen gaineko zamalkatzaileak, ditu ezaugarri, eta egitura tektoniko konplexua du (tolesak, zamalkadurak eta egitura diapirikoak), funtzionamendu hidrogeologikoa nabarmen baldintzatzen duena
Eragin hidrologiko nagusiak eraikuntza fasean metatzen dira, lanak gauzatzearen ondorioz, eta ez da hurbileko ingurunean ibilgu edo jariatze nabarmenik identifikatu; beraz, inpaktua bateragarritzat jotzen da. Ustiapen fasean, hutsalak dira lurrazaleko hidrologiaren gaineko eraginak
Lurpeko urei dagokienez, jarduketaren aurreko fasean inpaktu garrantzitsurik aurreikusten ez bada ere, eremuko akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun handia dagoenez, prebentzio neurriak hartu behar dira lanetan, ustekabeko eragin puntualak gerta baitaitezke. Nolanahi ere, eraikuntza fasean nahiz ustiapen fasean, lurpeko uren gaineko inpaktua, oro har, bateragarritzat jotzen da</td></tr>
<tr><td>Arabako hegoaldeko mendilerroak KEB/ HBBE</td><td>Proiektuaren eremua Natura 2000 Sareko «Arabako hegoaldeko mendilerroak» deritzon KBE/HBBE (ES2110018) naturagunearen barruan dago. Naturagune hori Arabako hegoaldeko mendilerroak (ES2110018) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) deklaratzen duen urtarrilaren 26ko 10/2016 Dekretuaren bidez izendatu zen, eta kontserbazio neurriak ezarri ziren. Toloño mendilerroan dago, trantsizio biogeografiko atlantiko-mediterraneoko sistema menditsu batean. Batasunaren intereseko habitatak ditu barnean, eta garrantzi handia du babestutako espezieentzat, hala nola Bonelli arranoarentzat eta ugatzarentzat. Eremu hori HBBE izendatu zen hegazti fauna mehatxatua zaintzeko duen balioagatik, eta baso ekosistema ugari ditu (pagadiak, erkameztiak eta artadiak). Proiektuaren okupazioa txikia da naturagunearen barruan, aldi baterako okupazioa 1.687 m²-koa dela, zortasuna 129 m²-koa eta behin betiko okupazioa 441 m²-koa, eremuaren osotasun orokorrari eragin gabe
Pentsatzekoa da proiektuak neurrizko eragin kaltegarria izango duela Natura 2000 Sareko eremuan lanen fasean, batez ere, hodiak lurperatzeari eta biltegi berria hondeatzeari lotuta egiten diren lur mugimenduen ondorioz. Hala ere, prebentzio neurriak aplikatuz, bertan dauden habitaten eta espezieen gaineko eragin esanguratsuak saihestuko dira, espazioaren balioetan izan daitekeen interferentzia minimizatuz. Testuinguru horretan, inpaktua garrantzi txikikotzat jotzen da. Ustiapen fasean, ez da ondorio gehigarririk aurreikusten, behin betiko okupazioa txikia delako eta babestutako espazioaren aldaketa funtzionalik ez dakarrelako</td></tr>
</table>

ELEMENTUA / ERAGINDAKO INGURUNEAREN EREMUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Landaredia eta habitatak	Eremuko landaredi potentziala ezpeldun erkameztia da, eremu horretako baldintza biogeografikoekin bat etorriz. Gaur egungo egoeran, ingurunean, landare estalkiak naturaltasun maila handia du, eta landaredi potentzialera hurbiltzen diren formazioak agertzen dira. Hala ere, obra egin beharreko eremu zehatzean, landaredia belardikoa edo larrekoa da. Beraz, ez dio bertako zuhaitz landarediari eragiten Ingurune horretako Batasunaren intereseko habitatei dagokienez, Quercus faginea espeziari atxikitako harizti iberikoek (9240 habitata) osatzen dute habitata gehienbat, karezko substratuen gainean garatu diren belardi lehor erdinaturalekin txandakatuta (6210* lehentasunezko habitata), flora biodibertsitate handiko eremuei lotuta, orkideak ere ageri direla. Lanak hasi aurretik, lurraren ingurumen prospekzioa egingo da espezie exotiko inbaditzaileak detektatzeko eta kontserbatu beharreko landaredia zedarritzeko, bereziki zuhaiztietan. Halakorik detektatuz gero, erauzi egingo da, baina idazketaren aldian ez da espezie inbaditzailerik identifikatu Lanen fasean, landare estalkia kenduko da biltegiaren okupazioak eta hoditeriaren zortasunak eragindako eremuetan, eta batez ere, Batasunaren intereseko habitatei eragingo die. Erkameztiari eta zuhaitz autoktonoei eragitea saihestu beharko da. Aurrekoaz gain, hauts esekia sortzeak inguruko landarediaren gaitasun fotosintetikoa murriztu lezake aldi baterako, eguraldiaren arabera, baina, ustez, inpaktu hori ez da oso esanguratsua izango. Oro har hartuta, inpaktua aldi baterakoa, zuzena eta metagarria da, baina neurri handi batean itzulgarria, lanak amaitu ondoren landare estalkia zortasun eremuetan birsortuko baita
Flora	Ez da aipatu Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan jasota dagoen espezierik proiektuaren eremuaren barruan. Beraz, ez da ildo horretako eraginik espero
Fauna	Eremuko fauna komunitateak lotura estua du bertan dauden habitaten eta landare formazioen aniztasunarekin, eta horrek interes ekologiko handia ematen dio eremuari. Bereziki nabarmentzekoa da usapal europarraren (*Streptopelia turtur*) presentzia; espezie hori kalteberatzat katalogatuta dago eta kudeaketa plan espezifikoa dauka Euskal Autonomia Erkidegoan. Hala, proiektuaren eremua lehentasunez esku hartzeko eremu baten barruan dago (2. mailakoa), eta populazioak hobetzeko epe ertain eta luzerako kontserbazio jarduerak aurreikusten dira bertan. Hala berean, eremua Arabako hegoaldeko mendilerroei eta Toloño mendilerroari lotutako hegazti nekrofagoak kudeatzeko espazioetan barruratzen da, bai eta linea elektrikoen talken aurkako babes eremuetan ere. Oro har, eremuak fauna balio handia du, habitatek bat egiten duten tokiak eta babestutako espezieen presentziak baldintzatuta, baina proiektuaren garapenarekin bateraezinak diren murrizketak eragin gabe Proiektuaren ziozko faunaren gaineko eraginak, batez ere, lanen faseari lotzen zaizkio, zaratak, bibrazioek eta makinen jarduerak sorrarazitako eragozpenak aintzat hartuta, baita lurzoruaren aldi baterako okupazioari ere, azkenak unean-unean eragin diezaiokeela mikrofaunari. Era berean, ibilgailuen trafikoa handitzeak ustekabeko harrapaketa arriskua sor dezake, batez ere, mugikortasun txikiko espezieetan. Hori dela eta, komeni da abiadura murriztea obraren inguruan, eta, beharrezkoa izanez gero, prebentzio eta erreskate neurriak hartzea. Horrez gain, ustekabeko isurketak eta hondakinen kudeaketa txarra gertatzeko arriskua dago, eta horrek eragina izan dezake inguruko ur ibilguetako lehorreko faunan eta iktiofaunan; beraz, behar-beharrezkoa izango da ingurumen jardunbide egokiak aplikatzea eraikuntzaren fase osoan. Oro har, inpaktua neurritsua, zuzena, aldi baterakoa eta itzulgarria da, ustiapen fasean eragin nabarmenik izan gabe
Korridore ekologikoak	Azterketa eremua Euskadiko Korridore Ekologikoen sareko gune baten barruan dago; «Toloño mendilerroa» du izena aipaturiko gune horrek Hoditeria ezartzeak eta biltegi berriari lotutako hondeaketak tokiko inpaktuak sorraraz ditzakete, baina, oro har, intentsitate arin eta aldi baterakoak, batez ere, lanen fasean gertatu ahal diren korridorearen funtzionaltasunaren uneko aldaketak. Eragin potentzialen artean, aipatzekoak dira zangen trazadurak landare estalkian izan dezakeen eragin zuzena tokiko eskalan eta fauna tokian-tokian lekualdatzeko arazoak, baina guztiak ere oso noizbehinkakoak dira. Eragindako espezieen aldi kritikoak errespetatu beharko dira
Paisaia	Proiektuaren eremua Bernedoko ikus arroan dago, Euskal Autonomia Erkidegoko paisaia berezi eta nabarmenen katalogoan sartuta, iparraldean, «Baso mosaikoa, larre menditarrekin, eremu karstikoan» eta, hegoaldean, «Hosto galkorreko hostozabalak, eremu karstikoan» deritzon paisaia unitatearen barruan, paisaia balio global handia duena, eta ingurunean ikusmen inpaktu moderatu gutxi dituena. Era berean, «Toloño mendilerroa» natura intereseko eremuak balio eszeniko oso handia du, eta, orobat, paisaiaren balorazio global oso handia Lurralde mailan, proiektua Arabako paisaia berezi eta bikainen katalogoan jasota dago, «Toloño mendilerroa (53)» paisaia bikain gisa sailkatua, eta Araba Erdialdeko eremu funtzionaleko paisaiaren katalogoan, «Toloño mendilerroa/Sierra de Toloño (36)» unitate gisa sailkatua. Gainera, paisaia interes bereziko eremu gisa (AEIP P11), kalitate handikoa eta ikusmen hauskortasun handikoa, sailkatuta dago Jarduketaren aurreko eta eraikuntzako faseetan, proiektuak unean uneko eraginak sorraraziko ditu paisaian, makinak, instalazio osagarriak, materialak pilatzea eta lur mugimenduak erabiltzearen ondorioz; izan ere, aldi baterako elementu desordenatuak eta inguruneko kalitate eszenikoa aldatzen duten kontraste kromatikoak eragingo dituzte. Hala ere, jarduketen hedadura mugatua dela eta, inpaktua bateragarri eta moderatutzat jotzen da. Obra integratzeko eta zedarriztatzeko neurriak hartzea aurreikusita dago (jarduketa eremua balizatzea eta mugatzea), paisaiaren zeharkako eraginak murrizteko helburuz. Ustiapen fasean, eragindako eremuen ingurumena lehengoratzeak, batez ere, biltegi zaharraren kokapenari dagokionez, eremuaren ikus kalitatea hobetzen lagunduko du, eta proiektuaren amaierako paisaia integrazioa erraztuko. Erabilerarik gabe geratuko den biltegia eraistea eta kentzea eta ingurune horren ingurumena lehengoratzea onuragarritzat jotzen da, paisaiaren gaineko ondorioak neurri handi batean konpentsatuz
Kultura ondarea	Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak egindako txostenaren arabera, lanek eragindako eremua bat dator Torcazarrako Andre Mariaren baselizako gune arkeologikoarekin (Lagrángo 23. fitxa). Ondorioz, eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 65. artikuluarekin bat etorriz, azterketa arkeologiko xehatua egin dadila eskatu behar da

ELEMENTUA / ERAGINDAKO INGURUNEAREN EREMUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Giza habitata	2023an, Lagránek 183 biztanle zituen eta 4,03 bizt./km²-ko dentsitatea, biztanleriaren zahartzea ezaugarri behinen duen egitura demografikoarekin: % 12,60 19 urtetik beherakoak, % 51,40 20-64 urtekoak eta % 36,10 65 urtetik gorakoak, EAEko joeraren ildotik. Ekonomiaren arloan, langabezia tasa % 9,9koa izan zen 2022an, eta jarduera zerbitzuen sektorean banatzen da nagusiki (% 55,8), eta, ondoren, lehen sektorean (% 22,4), eraikuntzan (% 18,9) eta industrian (% 2,8). Nabarmentzekoa da lehen sektoreak pisu handia duela EAE osoaren aldean Eraikuntza fasean, giza habitataren gaineko inpaktuak aldi baterakoak izango dira, eta lanak amaitu ondoren leheneratuko dira. Jarduketa herrigune eta bizitegi eremuetatik urruneko eremu isolatu batean egin behar denez, oinezkoen joan-etorria oso txikia da ingurune horretan. Erabiltzaileekiko eraginak unean unekoak eta lokalizatuak izango dira. Jarduketak iraupen mugatua duenez eta eragozpenak arintzeko proiektatu diren neurri zuzentzaileak aplikatuko direnez, inpaktua bateragarritzat jotzen da. Azkenik, azpiegitura martxan jarri ondoren, ingurune sozioekonomikoaren gaineko ingurumen inpaktua onuragarritzat jotzen da, Lagrán udalerriko ur-hornidura bermatu eta optimizatzen baita
Klima aldaketa	Jarduketen aurreko eta eraikuntzako faseetan, klima sistemaren gaineko eraginak eta horien ondorioak ez dira antzemango. Proiektatutako lanen garrantziak eta irismenak baztertu egiten dute klima aldagaietan edo berotegi efektuko gasen isurketen balantzean (BEG) eragin esanguratsurik izatea Ustiapen fasean, inpaktua ez adierazgarritzat (edo inpakturik gabekotzat) jotzen da. Azpiegituraren neurriak txikiak direnez, haren funtzionamenduak ez ditu inguruneko baldintzak aldatuko, eta jarduketaren aurreko edo hasierako egoeraren antzeko egoera izango da gerora ere
Arriskuak	Azterketaren eremua Lagrán udalerrian dago, eta ingurumen egokitasun handia du, arrisku sismikoa maila apal-moderatu batean (V-VI) sailkatuta dagoelako eta EAEko kartografia ofizialaren arabera kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak edo uholde arriskua duten eremuak egon daitezen baztertzen delako

«Lagránen ur biltegi berria eraikitzeko proiektua» deritzonean aurreikusitako jarduketek ez dute ingurumen inpaktu handirik eragingo, eta bateragarriak izango dira. Gainera, ustiapen fasean eragin onuragarria izango dute uren kudeaketan, betiere sustatzaileak ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura honen esparruan aurkeztu duen dokumentazioan deskribatzen diren jarduketetara egokitzen bada eta txosten honetan jaso diren zehaztapenak osorik errespetatzen badira.

Horregatik guztiagatik, txosten honetan adierazitako guztia kontuan hartuta, eta egindako ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren arabera, ez da aurreikusten «Lagrángo ur biltegi berria eraikitzeko proiektua» izenekoak ondorio adierazgarririk izango duenik ingurumenean, eta, beraz, ez da beharrezkotzat jotzen 21/2013 Legearen II. tituluaren II. kapituluko 1. atalean araututako ingurumen inpaktuaren ebaluazio arrunta izapidetzea. Hala ere, nahitaez bete beharko dira ingurumen inpaktuari buruzko txosten honetan, proiektuaren ingurumen dokumentuan eta kontsultatutako erakundeek adierazitakoak, bai eta ingurumena zaintzeko programa behar bezala gauzatu dela ere ziurtatzea.

Nolanahi ere den, ondorio hauek ez dute sustatzailea salbuesten legez eskatu behar diren ingurumen baimenak eskuratzetik.

4. Babes eta zuzentze neurriak

Ingurumen dokumenturen seigarren atalean, proiektuaren ingurumen integrazioko neurri batzuk adierazi dira, bai prebentziozkoak, bai zuzentzaileak. Neurri horiek, oro har, zuzentzat jotzen dira, eta, beraz, deskribatzen diren baldintzetan aplikatu behar dira. Hala ere, jarraian, neurri osagarriak azalduko dira, deskribatu den eragindako eremuaren gaineko ingurumen ondorio kaltegarriak saihesteko edo minimizatzeko hartu behar direla uste baitugu.

A) Proiektuaren egikaritzea ebazpen honetan jasotako zehaztapenei men egingo die, eta ebazpen honen aurka ez doan guztian, proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluaziorako sail honi aurkeztutako dokumentazioan jasotakoari. Lanak egin bitartean proiektuaren ezaugarrietan edo ekintzetan aldaketa nabarmenak eragiten badira edo espero diren ingurumen inpaktuak aldatzen badira, Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoari jakinarazi beharko zaio, eta berak baimendu beharko du aldaketa hori, onartu ondotik.

B) Ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean, 6. atalean (ingurumen integrazioko neurriak), azaldutako ingurumen inpaktuak prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak hartu beharko dira: Ingurumen inpaktuaren azterketan jasotzen diren prebentzio eta zuzenketa neurriak eta

proiektuaren dokumentu teknikoan adierazitakoak. Horretarako, sustatzaileak nahitaez gauzatu beharko ditu proiektuko ekintzak ingurumen inpaktuaren txosten honetan ezarritako ingurumen baldintzetara egokitzeko eta horiek betetzeko beharrezkoak diren jarduketak, «Lagrángo ur biltegi berria eraikitzeko proiektua» izenekoaren ingurumen inpaktuaren azterketan definitutakoez gain, bai eta ingurumen organo honek ezarritakoak ere, proiektatu diren lanak gauzatzearen ondorioz eragindako azalera guztien ekologia eta paisaia leheneratze osoa eta egokia egiteko.

C) Obra kontratatzeko baldintza agirian, ingurumen inpaktuaren azterketari buruzko agirian zehaztutako lanak egiteari buruzko ingurumen preskripzio guztiak jaso beharko dira, bai eta ingurumen inpaktuari buruzko txosten honetan adierazitakoak ere, betiere ingurunea babesteko eta obraren ingurumen inpaktuak azaltzeko. Agiri horretan azpimarratu beharko da hondeatze lanak eta materialak garraiatzeko egin beharreko lanak, ahal den guztietan, makina arinen bidez egingo direla, ahalik eta gehien murrizteko natura ingurunearen gaineko eta, bereziki, landarediaren, paisaiaren eta ingurune hibridoaren gaineko inpaktuak.

D) Lanak hasi aurretik, sustatzaileak komunikazioa bidaliko dio Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, lanen ingurumen jarraipen egokia egiteko eta ingurumen inpaktuari buruzko txosten honetan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko.

E) Lanak hasi aurretik, Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean adierazi duen bezala, berariazko azterketa arkeologiko bat egin beharko da, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legean ezarritakoaren arabera, jarduketa eremuan Torcazarrako Andre Mariaren baselizaren gune arkeologikoa baitago. Azterketa arkeologiko horren ezaugarriak, baldintzak eta neurriak Arabako Foru Aldundian kultura ondarearen arloan eskumena duten organoekin ezarritakoaren arabera zehaztuko dira.

F) Proiektuaren gauzapenak ukitzen dituen azaleren inguruaren mugaketa zehatza eta seinaleztapena egingo dira, ingurumen balio handieneko eremuetan balizak eta seinaleak jarrita. Bertan egon beharko dute ingurumen kalitateko zerbitzuaren obra zuzendariak, kontratataren obra buruak eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuko teknikari batek.

G) Lanak hasi aurretik, landaredia naturalaren azaleren eta eragina jasan dezaketen Batasunaren intereseko habitaten mugaketa zehatza egin beharko da, landa lan eguneratuetan eta landarediaren kartografia zehatzean oinarrituta, aurreikusitako okupazioa ahalik eta gehien doitzeko eta jarduketa eremuan dauden formazio naturalen gaineko eraginak minimizatzeko

Egikaritze fasean beharrezkoak diren neurriak hartuko dira obra eremuen ondoko landaredian beharrezkoak ez diren afekzioak saihesteko, besteak beste, zuhaitz eta zuhaixka ale garrantzitsuak babestea, kontserbatutako landarediaren gaineko ustekabeko kalteak kontrolatzea eta tratatzea, eta espezie exotiko inbaditzaileak sar edo heda daitezen prebenitzea, lurrak, makinak eta materialak behar bezala kudeatuz.

Era berean, programa integral bat gauzatu beharko da, lanek aldi baterako edo modu iraunkorrean ukitutako lursail guztiak lehengoratzeko eta paisaian integratzeko, baita azpiegitura berriei lotutako ingurune guztiak integratzeko ere. Programa horrek, gutxienez, honako jarduera hauek jasoko ditu:

• Lurra aldez aurretik harrotzea, modelatzea eta profilatzea, konformazio fisiografiko egokia eta aldameneko azalera naturalekiko integrazio egokia ziurtatzeko.

• Lanak egitean, aldez aurretik kendu eta gorde den landare lurraren gutxienez 0,4 metroko geruza zabaltzea eta profilatzea.

• Lurra prestatzea, lurra biguntzea, lantzea eta gainazala fintzea, landare estalkia ezartzen laguntzeko.

• Estalkia jartzea, landaretza naturala ezarrita kaltetutako gainazal guztietan ereintza edo hidroereintza bidez, eremuko baldintza edafoklimatikoetara egokitutako gramineoen eta lekadunen nahasketa autoktonoak erabiliz. Ingurumen organo eskudunak onartu beharko du nahasketa horien osaera.

Kaltetutako zuhaiztiak lehengoratzean, funtzionaltasun ekologikoaren galera garbirik ez dagoela bermatu beharko da, gutxienez. Horretarako, eta Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Egokitzapenerako Zuzendaritzak jakinarazitakoarekin bat etorriz, aldi baterako okupazioengatik eta okupazio iraunkorrengatik kendutako erkamezti azalera konpentsatu egin beharko da lehengoratuz edo azalera baliokide berriak sortuz, eta gutxienez 1: 2ko proportzioa gomendatzen da kaltetutako azaleraren eta leheneratutako azaleraren artean. Erkameztiaren 595 m^2-ko afekzio estimatua kontuan hartuta, lehengoratzea, gutxi gora behera, 1.190 m^2-ra izan beharko da, gutxi gorabehera. Behin betiko onartuko den proiektuan, sustatzaileak lehengoratze hori zer eremutan egitea proposatzen duen zehaztu beharko da, bai eta jarduketa aurrekontuan jaso ere.

Oharra: - Konpentsazio neurriak gauzatzen diren kokalekua ez da bat etorriko lehendik dagoen biltegia eta eraiki beharreko gordailu berria kokatuta dauden jarduera eremu zehatzarekin (eremu zehatz horretan neurri babesle eta zuzentzaileak gauzatuko dira, baina ez konpentsaziozkoak).

Basoa lehengoratzeko, erkameztiari lotutako landaredi potentzialeko espezieak erabiliko dira, eta jatorri egokia eta dentsitate nahikoa duen landare autoktonoa erabiliko da habitataren egitura eta funtzionaltasuna berreskuratzen direla bermatzeko. Era berean, biltegi zaharrak hartzen duen kokalekua lehengoratzea aurreikusi beharko da, elementua eraisten denean. Eremu hori, ahal dela, landaretza naturala lehengoratzeko erabiliko da, eta, bereziki, proiektuak eragindako baso azaleren galera konpentsatzeko.

Ingurumen organo honek baliozkotu beharko ditu ereite eta landaketen behin betiko ezaugarriak, bai eta lehengoratze jardueren kokapena eta azalera ere, proiektua behin betiko onartu aurretik.

Azkenik, lehengoratzeko jarduketen bermeak eta mantentze aldiak, gutxienez, hiru urte iraungo du. Epe horretan, landareztatzearen arrakasta ziurtatzeko beharrezko lanak egingo dira, hala nola hutsarteak betetzea, espezie inbaditzaileen kontrola, beharrezkoak direnean laguntzeko ureztatzeak eta lehengoratutako landare estalkiaren bilakaeraren aldizkako jarraipena. Hori guztia behin betiko onartzeko proiektuaren aurrekontuan jasoko da.

H) Zuhaitzak eta zuhaixkak moztu, inausi, belar-sastrakak kendu edo kentzeko edozein jarduketa hasi aurretik, faunan espezializatutako teknikariek berariazko prospekzio bat egin beharko dute, habiak, babeslekuak, etzalekuak, kumeak hazteko koloniak edo fauna intereseko espezieek hazteko talaia gisa erabilitako zuhaitz aleak ote dauden identifikatzeko.

Aurreikusitako jarduketen eraginpean egon daitezkeen zuhaitz masa eta ale guztiak ikuskatuko dira, eta arreta berezia jarriko da hegazti ugaltzaileen, kiropteroen eta zuhaiztia babesleku, ugalketa edo atsedenleku gisa erabil dezaketen beste espezie babestu batzuen presentzian.

Habia aktiboak, babeslekuak, etzalekuak edo katalogatutako faunarentzat interesgarria izan daitekeen eta proiektatu diren jarduketen eragina jasan dezakeen beste edozein elementu antzemanez gero, lanak eten egingo dira eragindako eremuan, berehala jakinaraziko zaio Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Zuzendaritzari, eta hark zehaztuko ditu hartu beharreko babes neurri espezifikoak. Neurri horien artean erabaki ahal izango dira, besteak beste, baztertze eremuak ezartzea, mozketa egutegia egokitzea, babes perimetroak mugatzea edo animaliak eta haien ugalketa, babes edo atseden eremuak jagotea bermatzen duen beste edozein jarduketa.

I) Hodiak eta beste azpiegitura batzuk ezartzeko proposatzen diren tokietan, landare lurrari dagozkion horizonteak gaika kenduko dira, eta komenigarria izango da berehala birbanatzea edo, ahal bada, lursail batean biltzea. Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoak baimendu beharko du lursail hori. Gehienez, 3 metroko garaierako sekzio trapezoidaleko masetan pilatu behar da, trinkotzea saihesteko. Landare lurra obrak eragindako eta txosten honetako aurreko paragrafoetan deskribatutako azaleretan erabiliko da, landareak lehengoratzeko eta lurzorua lehengoratzeko lanak egiteko helburuz.

J) Lanak egiten diren bitartean, ontzi estankoak, iragazgaiztutako andelak edo lubrifikatzaileak zein erregaiak biltegiratzeko bestelako sistemak gaitu beharko dira, eta debekatuta egongo da lehen erabilitakoak isurtzea; horiek baimendutako kudeatzaileari emango zaizkio.

Eraikuntza eta eraispen hondakinak ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

Kutsatu gabeko lurzoruak eta hondeatutako beste material natural batzuk diren hondakin ez-arriskutsuei dagokienez, urriaren 10eko APM/1007/2017 Aginduan adierazitakoa bete beharko da. Agindu hori hondeatutako material naturalak betelanetan eta sortu ziren obretatik kanpo erabiltzeko balorizazio arau orokorrei buruzkoa da. Hondakinen tipologia horri dagokionez, soberako lur eta harri garbiak maileguak behar dituzten beste proiektu batzuetan berrerabiltzea lehenetsi beharko da, 2030eko Euskadiko hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko planean hondakin tipologia horretarako ezarritako helburuak betetzeko joateko (ehuneko 75eko berrerabilera).

K) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak jakinarazi du sektoreko eragina ebaluatzeko protokoloan adierazten dela txosten teknikoa eskatu beharko zaiola Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenaren Zerbitzuari, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, kontserbatu eta zaintzeko 6/1995 Foru Araua aplikatzeko, landa bideei eragiten dien edozein jarduketa egin aurretik.. Era berean, adierazi du lanek ukitutako bideen erakunde titularraren baimena izan beharko dutela, eta, nolanahi ere, beharrezkoa dela bideak lehengoratuta geratzea lanak amaitzean.

L) Kontrol etxola eta instalazioari nahiz biltegi berriari lotutako gainerako elementu osagarriak diseinatu eta gauzatu beharko dira, ingurunean duten ikus eragina minimizatzeko. Horretarako, eraikuntza irtenbideak, materialak, akaberak eta inguruko paisaiaren kolore nagusiekin bat datozen tonalitate kromatikoak erabiliko dira, azalera islatzaileak, akabera distiratsuak edo ikuspena areagotzen duten kolore nabarmenegiak saihestuz.

M) Lanak amaitutakoan, garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eragin eremua obra hondakinez erabat garbi geratuko da, eta obra instalazioak erabat desegingo dira.

5. Zaintza eta jarraipena

Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 52. artikuluak adierazten duen bezala, organo eskudunari dagokio ingurumen inpaktuaren txostenaren betetze mailaren jarraipena egitea. Ingurumen organoak egiaztapenak egin eta informazioa bildu ahalko du ingurumen inpaktuaren txostenean ageri diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Nolanahi ere, «ingurumena zaintzeko programari» buruzko ingurumen dokumentuaren 7. atalean esaten den bezala, ingurumen jarraipena egingo da, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren artean koordinatuta. Lan hori eraikuntza fasean egingo da, aplikatutako neurri zuzentzaileen eta ingurumena lehengoratzeko neurrien eraginkortasuna ezagutzeko eta ebaluatzeko, eta atzeman daitezkeen akatsak zuzentzeko.

Proiektua behin betiko onartu aurretik, sustatzaileak (Ingurumen Kalitateko Zerbitzua) honako dokumentazio hau bidali beharko du, ingurumen ondorioetarako txostena egin dezan:

— Behin betiko proiektua, ingurumen inpaktuaren txosten honetan ezarritako neurriak ezartzearen ondoriozko aldaketak jasotzen dituena.

Lanak egiten diren bitartean:

— 7. atalean ezarritakoari jarraikiz egiten diren ingurumen jarraipeneko txostenak ingurumen-organo honi igortzea. Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedurarako aurkeztu duen ingurumen dokumentuaren ingurumena zaintzeko programa.

Aurrekoaren ondorioz, Arabako Foru Aldundiko Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. eta 64. artikuluetan eta Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuan eta hori aldatzen duen abuztuaren 3ko 48/2017 Foru Dekretuaren bidez xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lagrángo ur biltegi berria eraikitzeko proiektuaren ingurumen inpaktuaren txostena egitea».

Bigarrena. Ingurumen inpaktuaren txostena nahitaezkoa eta loteslea da, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79.1 artikuluak dioenari jarraikiz.

Hirugarrena. Ingurumen inpaktuaren txostenak indarraldia galduko du, eta berezko dituen ondorioak sortzeari utziko dio, baldin eta ALHAOn argitaratu ondoren lau urteko epean proiektua gauzatzen hasi ez bada, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79.5 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Kasu horretan, aipatutako Legearen 79.6 artikuluaren arabera, sustatzaileak berriro hasi beharko du proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren izapidea, salbu eta ingurumen organoari indarraldia luzatzeko eskatu badio.

Laugarrena. Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 48. artikuluak ezartzen duenez, ahalik eta eperik laburrenean eta, nolanahi ere, proiektua baimentzeko edo ukatzeko erabakia hartzen duenetik hamar egun balioduneko epean, erabaki horren edukiaren laburpen bat argitaratuko da ALHAOn. Halaber, bere egoitza elektronikoan argitaratuko dira erabakiaren edukia eta horrekin batera datozkeen baldintzak, erabakiaren oinarri diren arrazoi eta gogoeta nagusiak, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsultetan bildutako informazioa, eta informazio hori txertatu dela edo aintzat hartu dela.

Bosgarrena. Ebazpen hau jakitera ematea ALHAOn eta Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailaren egoitza elektronikoan argitaratuz.

Seigarrena. Ebazpen hau Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuari jakinaraztea.

Zazpigarrena. 21/2013 Legearen 47.5 artikuluaren arabera, ingurumen inpaktuaren txosten honen aurka ez da errekurtsorik jartzerik, hargatik eragotzi gabe proiektua baimentzeko egintzaren aurka administrazio bidean edo bide judizialean aurkez daitezkeen errekurtsoak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 30a

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko diputatua
SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Natura Ingurunearen zuzendaria
MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.21 05:58:53 Z